**EBAZPENA, 2020KO UZTAILAREN 15eKOA, POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, PRESTAKUNTZA-IKASTAROA AMAITU DUTEN PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAK DESTINOETARA ITZULTZEA XEDATZEN DUENA.**

**RESOLUCIÓN DE 15 DE JULIO DE 2020, DE LA DIRECTORA GENERAL DE LA ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS, POR LA QUE SE DETERMINA QUE LOS FUNCIONARIOS Y LAS FUNCIONARIAS EN PRÁCTICAS QUE HAN FINALIZADO EL CURSO DE FORMACIÓN SE REINCORPOREN A LOS DESTINOS.**

2019ko irailaren 3ko ebazpenaren bidez, praktiketako funtzionario izendatu ziren 2018ko abenduaren 3ko ebazpenak deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako pertsonak, 2019ko irailaren 9tik aurrerako ondorioekin, eta prestakuntza-ikastaroaren hasiera-data 2019ko irailaren 9koa izango zela ezarri zen.

Mediante Resolución de 3 de septiembre de 2019 se nombraron funcionarios y funcionarias en prácticas, con efectos al 9 de septiembre de 2019, a las personas seleccionadas través del procedimiento selectivo convocado por la Resolución de 3 de diciembre de 2018; estableciéndose como fecha de inicio del Curso de Formación la del 9 de septiembre de 2019.

Funtzio Publikoko sailburuordearen 2020ko martxoaren 11ko ebazpenaren bidez, bertan behera utzi ziren Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lantokietan egin beharreko aurrez aurreko prestakuntza-jarduerak, eta ezarri zen etenaldi horrek, oro har, bere horretan jarraituko zuela harik eta beste ebazpen baten bidez hura amaitzea xedatzen zen arte.

Mediante Resolución de 11 de marzo de 2020, del Viceconsejero de Función Pública, se suspendieron las actividades formativas presenciales a realizar en los centros de trabajo de la Administración General y sus Organismo Autónomos, estableciendo que la duración de esa suspensión se mantendrían con carácter general hasta que por medio de una nueva Resolución se dispusiera su finalización.

2020ko martxoaren 23ko ebazpenaren bidez, aldi baterako eten zen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoak garatzen zuen irakaskuntza-jarduera, martxoaren 23tik berriz adierazi arte.

Mediante Resolución de 23 de marzo de 2020 se suspendió de manera temporal, desde el 23 de marzo y hasta nueva indicación, la actividad docente desarrollada por el Organismo Autónomo Academia Vasca de Policía y Emergencias.

2020ko martxoaren 23ko ebazpenaren bidez, Segurtasun Sailburuordetzaren esku jarri ziren 2018ko abenduaren 3ko ebazpenean aurreikusitako prestakuntza-ikastaroa egiten ari ziren praktiketako funtzionarioak, eta ebazpen horren eranskinean zerrendatutako destinoak esleitu zitzaizkien.

Mediante Resolución de fecha 23 de marzo de 2020 se puso a disposición de la Viceconsejería de Seguridad a los funcionarios y funcionarias en prácticas que se encontraban realizando el Curso de Formación previsto en la Resolución de 3 de diciembre de 2018, asignándoles los destinos relacionados en el anexo a esa Resolución.

2020ko maiatzaren 15eko ebazpenaren bidez (2020ko maiatzaren 18ko ebazpenaren bidez zuzendu zen, eta 2020ko maiatzaren 27ko ebazpenaren bidez osatu zen), 2018ko abenduaren 3ko ebazpenaren bidez deitutako hautaketa-prozesuko prestakuntza-ikastaroko prestakuntza presentziala pixkanaka berrezartzea xedatu zen, lanera itzultzeko datak ezarriz eta ikasleen zerrenda eta dagozkion datak zehaztuz.

Mediante Resolución de 15 de mayo de 2020, corrección de errores por la de 18 de mayo de 2020, y complementada por la de 27 de mayo de 2020, se dispuso el restablecimiento progresivo de la formación presencial del Curso de Formación correspondiente al procedimiento selectivo convocado por la Resolución de 3 de diciembre de 2018, estableciendo las fechas de esa reincorporación y determinando la relación de alumnos y alumnas y las fechas correspondientes a tal efecto.

2019ko irailaren 9ko ebazpenaren bidez izendatutako praktiketako funtzionarioek data berean has dezaten 2018ko abenduaren 3ko ebazpenaren hamabosgarren oinarriko 4. atalean aurreikusitako praktikaldia, ezartzen da 2020ko ekainaren 1ean prestakuntza-jarduera presentzialari berrekin ziotenak sailburuordearen 2020ko martxoaren 23ko ebazpenaren bidez esleitutako destinoetara itzuliko direla. Destino horietan egongo dira 28. Promozioa osatzen duen talde osoak prestakuntza-ikastaroa amaitu arte.

Con el fin de que los funcionarios y las funcionarias en prácticas nombradas por la Resolución de 9 de septiembre de 2019 inicien en la misma fecha el periodo de prácticas previsto en la Base Decimoquinta, apartado 4 de la Resolución de 3 de diciembre de 2018, se establece que quienes retomaron la actividad formativa presencial en fecha 1 de junio de 2020 se reincorporen a los destinos asignados por la Resolución de 23 de marzo de 2020 del Viceconsejero de Seguridad hasta que todo el contingente que compone la Promoción 28 finalice el Curso de Formación.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko 15/2012 Legearen 23., 26. eta hurrengoek, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren egiturari buruzko 96/2010 Dekretuaren 3. eta 8. artikuluek eta indarrean dagoen eta aplikagarria den gainerako legeriak emandako eskumenen arabera, honako hau

En virtud de las competencias conferidas por los artículos 23, 26 y ss. de la Ley 15/2012, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi; 3 y 8 del Decreto 96/2010, de estructura de la Academia de Policía del País Vasco; y demás legislación vigente aplicable,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

**LEHENENGOA.-** 2020ko ekainaren 1ean prestakuntza-jarduera presentzialari berrekin zioten praktiketako funtzionarioak Segurtasuneko sailburuordearen 2020ko martxoaren 23ko ebazpenaren bidez esleitutako destinoetara itzul daitezela xedatzea, 28. promozioa osatzen duen talde osoak prestakuntza-ikastaroa amaitu arte.

**PRIMERO.-** Disponer que los funcionarios y las funcionarias en prácticas que retomaron la actividad formativa presencial en fecha 1 de junio de 2020 se reincorporen a los destinos asignados por la Resolución de 23 de marzo de 2020 del Viceconsejero de Seguridad hasta que todo el contingente que compone la Promoción 28 finalice el Curso de Formación.

**BIGARREN.-** Destino horietan 2020ko uztailaren 17an hasiko dira.

**SEGUNDO.-** La fecha de incorporación a esos destinos es el 17 de julio de 2020.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Iragarki-oholean argitaratzea, eta interesdunei jakinaraztea ebazpen honen kontra, administrazio-bideari amaiera ematen diona, Aukerako Berraztertzeko Errekurtsoa aurkeztu ahal izango diotela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiari, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epearen barruan.

**TERCERO.-** Publíquese en el Tablón de Anuncios de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, comunicando a las personas interesadas que contra la misma, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación o notificación.

Halaber, zuzenean aurkatu ahal izango diotela administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenari.

Podrá, alternativamente, impugnarse directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo. En este caso,

Halaber, zuzenean aurkatu ahal izango diotela administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenari. Interesdunek bide jurisdikzionala aukeratuz gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharko du eskudun Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzenduta, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epearen barruan, beti ere, uztailaren 13ko 29/1998 legearen 14. artikuluak ezartzen duenaren arabera.

Podrá, alternativamente, impugnarse directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo. En este caso, las personas interesadas podrán interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la fecha de su notificación, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo competente conforme al artículo 14 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

Arkautin, 2020ko uztailaren 15ean.

En Arkaute, a 15 de julio de 2020

Sin./Fdo.: Malentxo Arruabarrena Julián
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusia/Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias

**EGINBIDEA**

Jakinarazteko, egun honetan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2020ko uztailaren 15eko Ebazpena Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean argitaratu dela. Ebazpen horren bitartez, prestakuntza-ikastaroa amaitu duten praktiketako funtzionarioak Segurtasuneko sailburuordearen 2020ko martxoaren 23ko Ebazpenaren bidez esleitutako lanpostuetara itzultzea xedatzen da.

**ERREKURTSOAK**

Ebazpen honen kontra, Administrazio bidea agortzen duena, interesatuek Aukerako Berraztertzeko Errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari, argitaratuta agertu eta hurrengo egunetik harako hilabeteko epearen barruan, edo zuzenean aurkatu ahal izango diote administrazioarekiko auzigaietarako orden jurisdikzionalari.

Interesatuak bide jurisdikzionala aukeratuz gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharko du eskudun Administrazioarekiko Auzigaien Epaitegiari zuzenduta, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epearen barruan, beti ere, uztailaren 13ko 29/1998 legearen 14. artikuluak ezartzen duenaren arabera.

Arkauti, 2020ko uztailaren 16a

**DILIGENCIA**

Que se extiende para hacer constar que con esta fecha se hace pública en el Tablón de Anuncios de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, la Resolución de fecha 15 de julio de 2020, de la Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, por la que por la que se determina que los funcionarios y las funcionarias en prácticas que han finalizado el Curso de Formación se reincorporen a los destinos asignados por Resolución de 23 de marzo de 2020 del Viceconsejero de Seguridad.

**RECURSOS**

Contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá formularse recurso potestativo de reposición ante la Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación o notificación. Podrá, alternativamente, impugnarse directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Si la persona interesada opta por la impugnación jurisdiccional, procederá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la fecha de su notificación, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo competente conforme al artículo 14 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

Arkaute, 16 de julio de 2020

Sin./Fdo.: Langileria eta Araubide Juridiko Arloko Burua
Jefe Área Personal y Régimen Jurídico

Ctr. N-104 - Km. 356
01192 ARKAUTE (Araba)
Tef. 945 28 52 00
Fax 945 28 67 55